

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko apirilaren 23a / 105. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Domekan aukeratuko dute aurtengo bertsolari txapeladuna

UBANE MADERA

Orduak besterik ez dira falta aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketako finalerako. Eguaztenean, hilak 21, aurkeztu zuten ekitaldia Gasteizen. Hantxe izan ziren lehiaketan parte hartuko duten bertsolariak, artean, Manex Agirre, irabazteko gogo handiarekin.

Aramaioko eta Laudioko finalerdietan puntuazio altuena lortu zuten sei bertsolarietako parte hartuko dute domekako saioan: Asier Otamendik, Oihane Pereak, Ruben Sanchezek, Juan Mari Juaristik, Iñaki Viñasprek eta, jakina, Manex Agirrek. 17:30ean hasiko da saioa, Gasteizko Printzipal antzokian. Sarrerak aurrez eros daitezke, baina, hala egin ezean, bertan ere egongo dira saltzen, sei euroren truke; bazkideek eta 16 urtetik beherakoek hiru euro ordaindu beharko dute.

Naroa Sasietak aurkeztuko du saioa. Eta epaimahaia honako hauek osatuko dute: Patxi Aizpuruak, Xabier Ormaetxek, Mirari Azulak eta Felix Irazustabarranak. Idazkari lanetan, berriz, Karmele Madinabeitia ibiliko da.

Manex Agirrek Goiena Tebistari adierazitakoaren arabera,



JULEN IRIONDO

Finalean parte hartuko duten bertsolariak aurkeztu zuten domekako saioa.

aurten, irabazteko gogo handiarekin doa finalera.

Bestalde, eta txapelketari orokorrean begiratuta, antolatzailea, Arabako Bertsozale Elkartea, pozik dago aurtengo edizioarekin. Eguazteneko prentsaurrekoan esandakoaren arabera, inoiz baino parte-hartze handiagoa izan dute, guztira, 23 bertsolari; hala, aurten, Araban izaten diren bertsolari txapelketen eta sariketen

historiako marka haustea lortu dute. Gainera, adinari begira, oso parte-hartze gaztea izan da, 20 urtekoa, batez beste. Era berean, esan beharra dago emakumeen parte-hartzea zabala eta beste herrialde batzuetan baino altuagoa izan dela: zazpi emakume. Eta lekuei begiratuta, aurten hautsi egin da Gasteizen urtetako monopolioa, eta eskualdeek ordezkartza handia izan dute.

Elbarrituta dauden adineko pertsonendako programa

UBANE MADERA

Elbarrituta dauden adineko pertsonak aldi baterako egoitzan egoteko programa abiarazi dute. Uztailean, abuztuan eta irailean parte hartzeko eskakarak apirilaren 30a baino lehen egin behar dira.

Zenbait baldintza bete behar dira aipatutako programan parte hartzeko: 60 urte beteta izatea; Arabako egoiliarra izatea eta lurralde historikoko erroldan sartuta egotea eskaera aurkeztu baino hiru urte lehenagotik, gutxienez; elbarritasun larriren bat izatea, eta horren ondorioz beste pertsona baten laguntza beharrezkoa izatea

eguneroko bizimodua egiteko, egin den eskariak Adineko Arloko Baliztatze Batzordearen aldeko txostena izatea.

ESKABIDEAK EGITEKO EPEA

Lehen aipatu dugun moduan, adineko elbarriendako programan parte hartu nahi dutenek datorren apirilaren 30a baino lehen egin beharko dute eskaera. Kontua da aipatutako hilabete horietarako bestetan baino eskaera gehiago izaten direla. Bestela, beste edozein hilabetetarako urte osoan egin daiteke eskaera. Informazio gehiago behar duenak Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzura beharko du.

LABUR

Zenbait gazte Udalak ezarritako baldintzak onartu, eta gazte lokaletan sartu dira

Zabaldutuzte kultura etxeko gazte lokalak. Oporretan sartu zuten gazteak, eta dagoeneko egin dute hango lokalen banaketa, adinaz arabera. Udalarekin hitzartutako moduan, 14-20 urte bitarteko gazteak sartu dira lokaletan. Laster aurkeztuko diote partaideen zerrenda Udalari. Era berean, Udalarekin hitzartutako ordutegi-muga errespetatuko dute, baldintza horrekin sartu dira-eta. Lokaletan egin beharreko lanen gainean, berriz, Mertxe Mondragonek adierazi dituzte atzeratu egin direla, gazteek lokaletan sartzeko presa zuten-eta.

Egun berezia Bizente Goikoetxea musikariarengatik


U.M.

Guztia gertu dute Aramaion Bizente Goikoetxea musikariaren jaiotzaren urteurreneko omenaldia egiteko. Eguerdian izango dira ekitaldi gehienak. Horien tartean, kontzertua da nabarmenezkoa.

Eguerdiko mezaren ostean izango da kontzertua, 12:45ean, Aramaio parrokian. Hiru abesbatzak parte hartuko dute, guztiak ere Bizente Goikoetxearen lana goraiatuko dute eta haren konposizioetako batzuk interpretatuko dituzte. Hala, Aramaiotik, Bizente Goikoetxea Abesbatzak

parte hartuko du, Martin Arana-ren zuzendaritzapean. Gero, Bizente Goikoetxeak Valladolideko unibertsitatearekin izan zuen harreman estuaren adierazle, hango abesbatzak kantaldia eskainiko du, Jose Martin Gonzalez zuzendaritzapean. Eta bukatzeko, Gasteizko Araba abesbatzaren txanda izango da, Aitor Saez de Kortazarrek zuzenduta eta Sabin Salaberriaren organo musikak gidatuta.

Kontzertu horren ostean, Bizente Goikoetxea gogora arazteko plaka bat erakutsiko dute. Elizpean ipini dute plaka hori oraingo astean. Bukatzeko, bazkaria egingo dute, Iturrietan.



'Korapiloak' eskultura Bañeran

Ipini dute Bañera parkean Korapiloak izeneko eskultura. Miguel S. Etxeberria eskulturagile gipuzkoarrak egindakoa da, Caja Vital Fundazioak antolatutako eskultura lehiaketaren barruan. Edozelan ere, oraindik ez dituzte hango lan guztiak bukatu. Batetik, eskultura ipintzeko lekuz aldatu zuten kale argia lehengo lekura bueltatu beharko dute. Eta bestetik, eskultura ipintzeko erabilitako makinak zapal dutako belarra-eta txukundu egin beharko dituzte.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAREN PARTIDUAK

Oporraldiaren ostean, Bañerako taldeek berriro ere ekingo diote partidua jokatzeari. Eta dagoeneko esan dezakegu mutilen taldeak irabazi duela tokatzen zaion partidua. Kontua da Los Herran taldearen kontra jokatu behar zutela, baina talde horrek dagoeneko abisatu du ezin izango duela partidura joan. Hortaz, Bañerako mutilek 1-0 irabazi dute partidua, jokatu barik. Neskei dagokienez, Ekialderen kontra dute hitzordua, Ekialden, 11:30ean.

ZAPATUKO ZINEMA

Fernando Meirelles eta Katia Lund zuzendarien artean egindako *Ciudad de Dios* filma emango dute. Lau Oscarretara izendatu zuten film hori. Gai gogorra lantzen du, baina ikusteko moduko filma da.

DOMEKAKO ZINEMA

Buscando a Nemo filma emango dute. Marrazki bizidunak dira, Pixar produktoreak egindakoak. Produktore berak egin zuen *Monstruos S.A.* filma.

KULTURA

Aramaioko I. Gazte Egunaren emaitzarekin pozik geratu dira antolatzaileak

Trikitia eta panderoa hartu, bertsoen doinuekin kantu bereziak egin eta modu horretan, kalez kale eta tabernaz taberna ibili ziren Aramaioko eta inguruko gazteak joan den barikuan, hilak 16. Ondo girotuta hasi zuten, beraz, Aramaioko I. Gazte Eguna, triki-poteo ederra eginez. Gero, erritmorik ez galtzeko, afaria egin zuten trikitilari, bertsolari eta bestelako musikariek. 45 lagun elkartu ziren eskolan. Bukatzeko, eta eguna biribiltzeko, musika kontzertua izan zuten gauean, kiroldegian. Zerrendan, bost talde, tartean, herriko bi: Sharon Stoner, Ataka, Sakre, Materia eta Biok.

Hala, Sharon Stoner oñatiarrrek eman zioten hasiera kontzertuari. Gero, herriko taldeei iritsi zitzaizen txanda. Ataka izan zen lehena, eta Sakre bigarrena. Bukatzeko, Materia eta Biok taldeek jo zuten, goizaldeko ordu txikiak arte. Era berean, eta talde batetik bestera izaten diren tar-



teak betetzen, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa aramaiokarrek bertsotan jardun zuten.

Bestalde, kontzertuekin batera, bi DJren parte-hartzea ere zegoen iragarrita, baina azken orduko arazoengatik ezin izan zuten parte hartu. Edozelan ere, ez zen hutsunerik igarri eta kiroldegian elkartu ziren 170 lagunak ondo asko ibili ziren.

BALORAZIO POSITIBOA

Herriko taldeek antolatu zuten Aramaioko I. Gazte Eguna. Sakre taldeko Patxi Godoi abeslariarekin izan gara balorazioa egin diezagun. Hala, esan digu oso pozik daudela, Aramaioko gazteek izan ezik, inguruko gazte dezentek ere parte hartu zutelako ekimenean. Gustura asko ibili ziren jai berezian, eta datorren urtean errepi-katzeko gogoarekin geratu dira. Bestalde, gastu aldetik-eta Patxi Godoik kontatu digu sarrerekin batu zutenarekin eta kiroldegian ipinitako tabernetan batutakoarekin, dirurik, behintzat, ez dute la galdu. Eta badirudi herriko musika taldeak ere gustura geratu direla kontzertuarekin; izan ere, eurekin harremanetan jartzeko bidea esan digute, norbaitek interesa badu: Sakre: 605 74 55 13; Ataka: 696 17 86 98.

BOTEPRONTOAN / Javi Carro · Zuiako Koadrilako presidentea

“Erronka da gureak moduko herri txikietan bizitzea, bereziki, gastua hirietan baino handiagoa delako”

Javi Carro dugu oraingo astean berbalaguna. Urkabustaizko alkatea eta Zuiako Koadrilako kidea da 1991z geroztik. Are gehiago, 1995ean koadrilako presidente aukeratu zuten eta harrezkero bera izan da presidente. Hain zuzen ere, iaz aukeratu zuten hirugarren aldiz; hortaz, 2007ra arte presidente izaten segituko du.


Zein kidek osatzen duzue Zuiako Koadrila?

Gaur egun, eta koadrila osatzen duten herrien arabera, 16 batzarkide gara: Aramaiotik, hiru (Mertxe Mondragon, Patxi, Aiastui eta Andres Osinaga); Arratzu-Ubarrundiatik, bi; Legutianotik, hiru; Urkabustaiztik, bi; Zigoititik, hiru; eta Zuiatik, beste hiru.

Noiz eta zela aukeratu dira ordezkariok?

Udalak moduan, lau urtean behin. Udalak eratu eta gero, eta lortutako ordezkariak politikaren arabera, udalek aukeratu dituzte zeintzuk izango diren koadrilako euren ordezkariak.

Zeintzuk dira zuen eskumenak? Koadrilaren eta koadrila osatzen duten udalendako interes orokorrekoak diren zerbitzuak bultzatzea eta kudeatzea, bereziki. Kontuan



“Gureak moduko udalherri txikietan bateratutako zerbitzu asko eman daitezke”

hartu beharra dago gureak moduko udalherri txikietan bateratutako zerbitzu asko eman daitezkeela. Hain justu ere, modu horretan kostuak merkatu egin daitezke eta ziurtatu egiten dugu zerbitzu hori ematea.

Horrez gainera, nabarmenduko nuke informatzeko, eztabaidak egiteko eta bestelako politikak koordinatzeko, kanalizatzeko eta lantzeko bidea ere badela koadrila. Edozelan ere, koadrilak udalei zuzenean ematen dizkien zerbitzuak honakoak dira: ekonomiarekin eta enpleguarekin lotutako aholkularitza teknikoak; animazio sozio-kulturala; hirigintza gaiekin lotutako aholkularitza teknikoak; oinarritzko laguntza soziala; artxibo zerbitzua; eta bake epaitegiei aholkularitza zerbitzua.

Koadrila osatzen duten herriak

zein egoeratan daude?

Hasteko, berez, erronka da halako herrietan bizitzea, bereziki, eta hiriek konparatuta, gastu handiagoa izaten delako. Edozelan ere, orokorrean, koadrilako herriak antzera samar daude, garapen mailari dagokionez zein beharrei dagokienez. Gizarte heldua dugu, eta ur zerbitzuarekin lotutako zenbait beharrez gain, herritarren eskaerak gainditu egiten dituzte nekazari guneetan ematen diren zerbitzuak. Horren harira, ahalegin handiagoa egin behar dugu udalei hezkuntzarekin, kulturarekin eta gizarte gaiekin lotutako azpiegiturak emateko. Edozelan ere, oro har, Araban etxebizitzarekin eta lanarekin lotutako beharrak ditugu. **Hektarea kopuruen arabera, zabalera handiena duen koadrila da Zuiakoa?**

Ez da zabalena, baina lana zailtzeko besteko distantzia badago. Horri aurre egiteko, Udal guztietako alkateez osatutako batzordea eratu genuen, eta batzorde hori aldiro elkartzen da. Era berean, udalei ematen dizkiegun zerbitzuen gainean, langileak txandaka ibiltzen dira herriz herri lanean.

“Orain arte bezala segituko dugu lanean eta adi ibiliko gara herritarrek dituzten beharrek”